



2017-2021eko

**Plan**  
**estrategikoa**



**Caritas**  
Gipuzkoa

**Sarrera. Egitekoa, ikuspegia eta balioak.  
Gure gizarte ekintza bereizteko irizpideak**

**2-5**

**0**

**Kristau komunitatea**

**6-8**

**1**

**Pertsonen arreta eta laguntza ematea**

**9-10**

**2**

**Gizarte presentzia eta eraldakuntza**

**11-12**

**3**

**Pertsona eragileak**


**13-14**

**4**

**Erakundea**


**15-16**

Kristautasuneko bi mila urte hauetan guztietan, asko eta askok sentitu dute Jainkoaren maitasuna Elizako hainbat pertsonaren, erakunderen, talderen eta zerbitzuren maitasunari esker. Horiek denek San Joanen ebanjelioak dioenari erantzunez jarduten dute: "Izan ere, Jainkoak hain maite izan zuen mundua, non bere Seme bakarra eman baitzion" (Jn 3,16). Funtsezkoa horixe baita, geure burua eskaintzea. Horrenbestez, Caritas Gipuzkoarentzat ere hori bera da garrantzitsuena. Evangelii gaudium aholku-idazkian, Frantzisko aita santuak honela dio: "Elizak, gizarte-pastoraliza berritu batean oinarriturik, justiziaren defendatzaile eta behartsuen aldele behar luke, giza-bultzada oso baterako", eta horren azken helburua "behartsuak elizan beren etxean bezala sentitzea" izango litzateke. "Behartsuekiko adiskidetasuna" berritzera animatzen gaitu; izan ere, "ez dira gure karitatearen hartzaile soil, baizik eta Kristoren ordezkari". Horrenbestez, kontua ez da "gauzak



## **2017-2021 plan estrategikoaren aurkezpen orokorra**

egitea edo laguntza ematea, baizik eta senide izatea" (EG 198). Bestalde, esaten zaigu ezin ditugula "arazo ekonomikoak eta gizartekoak arazo pertsonal soilak balira bezala hartu", horrela ez direlako kontuan hartzen arazo horiek dituzten egiturazko dimentsioak, arrazoiak eta erantzuleak. "Txirotasunaren egiturazko kausak konpondu behar dira, eta behartsuen garapen integrala bultzatu" (EG 188). Berri Ona "ausardiaz eta norberaren burua esperantzaz eskainiz" aldarrikatzea da erronka (EG 109). Horretan gabilta. "Karitatearen irudimen berrirako" deiak adoretzen gaitu. Baita "helburu, egitura, estilo eta metodo ebanjelizatzaileak berraztertzeak" ere (EG 33), baina hori, argi eta garbi, maitasunaren espiritualtasunean oinarriturik egin behar dugu, "caritas" errukitsuaren bidez, pertsona bakoitzari aurrez aurre begiratzen diona eta haietako bakoitzaren minez eta sufrimenduaz hunkitzen dena.



## Sarrera

Begirada Gipuzkoako gizarte errealitatean jarrita eta miseriardiaren urtea baino hilabete batzuk lehenago, Caritas Gipuzkoak 2015. urteko urrian eman zituen lehen urratsak erakundearen II. Plan Estrategikoa prestatzeko. Caritaseko langile guztiekin eta

Parrokia Caritasetako pastoral eragile guztiekin hasi genuen prozesu komunitario hori, begirada pertsonen bizi duten gizarte bazterketa eta ahultasun egoeretan jarrita. Begira horren bidez begiak zabaldu ditugu eta ikusi dugu pertsonen behar handiak dituztela duintasunez bizi ahal izateko. (Elikatzeko eta janzteko beharrak nahiz harremanak, zentzua eta gizarte eskubideak izateko beharrak).

Errealitatearen kontenplazio izpiritu horrekin, Caritas Gipuzkoak gogoeta egin du bere gizarte ekintzaren inguruan, dituen baliabideak hobetzeko eta egokitzeko, eta Gipuzkoan, eta baita munduko beste edozein lekutan ere, baztertuak eta gizarte egoera ahulean dauden pertsonen eta familien arreta eman eta lagundu ahal izateko, gizartea eraldatzeko xedearekin betiere.

## **Gipuzkoako Caritasen II Plan Estrategikoaren elementu azpimarragarriak**

Hona hemen planak, besteak beste, garatzen dituen hiru gizarte-elementu garrantzitsu

- Pertsoneri eta familiei lagun egitea; horrek haiekin elkartzera eta bat egitera bultzatzen gaitu.
- Lagun-egite horrek berekin du prebentzio-lana, pertsonentzat eta familientzat okerragoak izan daitezkeen gizarte-arriskuko egoerak eragozten baititugu.

- Halaber, laguntza horrek enplegu- eta prestakuntza-laguntza indartzera behartzen gaitu, enplegua eta prestakuntza gizarteratzearen adierazgarri diren aldetik.

### **Egitekoa**

#### **Garena**

Caritas Gipuzkoak, elizan karitatea erakusteko eta antolatzeko, kristau elkarten bidez bere gain hartzen du lurreko pertsona eta herri pobretuei arreta eskaintzeko egitekoa, pertsonen eta herrien garapen integrala bultzatzeko eta gizartea eraldatzeko

konpromisoarekin, mundu justu eta zuzenagoa eraikitzeko, azken batean. Konpromiso bikoitz hori aurrera eraman ahal izateko, Caritas Gipuzkoak halako funtsezko printzipio batzuetan jartzen du arreta, elizaren gizarte doktrinan oinarrituta.

### **Ikuspegia**

Caritas Gipuzkoak BERRI ONA izan nahi du pertsona eta herri pobretuentzat, eta horrenbestez, erakunde osoa, langileak eta boluntarioak, eta haiekin batean, eliza gipuzkoar osoa, prest dago helburu bikoitz hori, hauxe da, BERRI ONA izateko eta JAINKOAREN ERREINUA BILATZEKO helburuak lortzeko

denbora, harremanak eta baliabideak eskaintzeko. Caritas Gipuzkoak erreferentzia erakunde izan nahi du gizarte eremuan, kristau elkarteekin eliza eraiki, pertsoneri eta herriei lagunduz, bizi diren eta bizikide diren lekuetan. Horrenbestez, arreta emango die gizarte beharrei eta pertsonen eta herrien gizarte

eskubideak defendatuko ditu, haiek urratzen diren lekuetan eta momentuan. Itxaropen eta elkartasun zeinu izango da Caritas pobreziaren aurkako borrokan, eta pertsona eta herri ahulenen ahotsa izango da, betiere gizarte parte hartzea bilatuz pertsonaren zentralitatearen elementu nagusi gisa.

## Balioak

### **Anaitasuna**

Jainkoaren semeak eta alabak gara, gainerako pertsonekin harremanak izaten ditugu eta komunitatea osatzen dugu, hertsiki lotzen gatzaizkio gure anaien eta arreben bideari.

### **Doahotasuna**

Geure burua gainerako pertsoneri eskaintzeko eta zerbitzatzeko modua. Doan jaso duguna doan eman behar dugu.

### **Elhartasuna**

Pertsonaren duintasun ukaezinetik eta ondasunen erabilera unibertsaletik datorrena.

### **Parte hartzea**

Proiektu partekatua eta leku komun bateko kide izateko zentzua sortzen ditu entzunkidetasunean eta guztion lanean oinarrituta.

### **Justizia eta gizarte eraldakuntza**

Pobreziaren aurka borroka egiten du Caritasek, pertsona guztiak duten bizitza duina izateko eskubidea babestuz, eta horretarako, bidea oztopatzen duten gizarte egiturak eraldatzeko eskatzen du.

### **Gardentasuna eta zorrozatasuna**

Kalitatez eta gardentasunez bideratzen dugu gure ekintza, eta modu etiko eta koherentean erabiltzen ditugu gure baliabideak.

## Gure gizarte ekintza bereizteko irizpideak

PERTSONARENGANA hurbilduz, harekin elkartzean garbi daukagu izango dugun harremanean oso garrantzitsua dela,

- Pertsonaren duintasuna errespetatzea.
- Pertsona ezagutzea eta zer gaitasun eta ahalmen dituen jakitea.
- Pertsonari aukera ematea bere erabakiak modu autonomoan har ditzan.
- Laguntza lana bultzatzea prozesu baten barnean.
- Pertsonari paper aktiboa har dezan uztea.
- Pertsonarekin egoteko denbora eskaintzea.

Gainera, eta bakarrik modu horretan, gara pertsonak HARREMANEAN, KOMUNITATEAN, GIZARTEAN, eta testuinguru horretan, beste alderdi garrantzitsu batzuk ere baditu gure ekintza soziokaritatiboak,

- Behar handienak dituztenentzat da.
- Beste eragile batzuekin sareko lana bultzatzen du.
- Komunitate osorako eragin positiboa du.
- Justizian oinarrituriko gizarte eredu bultzatzen
- laguntzen du.

# 0. ardatza **Kristau komunitatea**

Kristau komunitateak bere egiten du pertsonen eta herriekin elkarlanean eta herriekin elkarlanean.

arreta emateko zeregina, baita gizartea eraldatzeko ere, bizimodu duina-

goa izan dezaten. Kristau komunitatea da gure inguruan eta herri

ahulenetan Caritasen lanari zentzua ematen dion zehar-ardatza.

0.1

Estrategia

## **Kristau komunitatearen barruan eta gizartearekin komunikaziorako tresnak eta espazioak garatzea**

Helburu estrategikoa

**0.1.1.** Komunikazioa hobetzea kristau komunitateko kideen artean.

Ekintzak

- Informazio eguneratuak eta garrantzitsuak sortu eta banatzea barneko nahiz kanpoko komunikabideetan eta sare sozialetan (web, erakundearen mezuak, intranet...).
- Caritas Gipuzkoaren parte hartze aktiboa bultzatzea foroetan, plataformetan...
- Herrialdean Caritasen kanpainak lantzea.

**0.1.2.** Gizartearekiko komunikazioa hobetzea, proiektuen, pertsonen eta abarren esperientziak partekatuz.

- Topaketarako espazioak eta esperientzia-mahaiak sortzea zonaldeko proiektuentzat.

0.2

Estrategia

## **Belaunaldiak ordezkatzeko plan bat diseinatzea**

Helburu estrategikoa

**0.2.1.** Lanean aritzea, boluntario berriak lortzeko.

Ekintzak

- Sentsibilizazio-kanpainak garatzea.
- Gune publikoetan hitzaldiak sortzea, topaleku informaletan parroquia komunitatearekin, auzokoekin.

- Parrokia Caritas batera etortzen diren pertsonen sarrera eta prozesuak zaintzea.
- Bat egiten duten pertsonen prestakuntza-aukerak eskaintzea.
- Auzoetako Caritasetan ate irekien egunak programatzea.
- Auzoetan Caritasek egiten dituen informazio-buletinak banatzea.
- Parrokiako komunitatearekin, auzokoekin, herrieekin egoteko topaketa espazio informalak sortzea.
- Arreta berezia ematea parrokiatan laguntzen ari diren boluntarioei.

0.3

Estrategia

## Koordinazioa hobetzea

Helburu estrategikoa

**0.3.1.** Talde-lana indartzea.

Ekintzak

- Estrategiak diseinatzea, parrokiako eta zonaldeko taldeen egitura sendotzeko; horretarako, boluntarioen eta erretoreen inplikazioa beharko da.
- Parrokia Caritasei talde-lanerako dinamikei buruzko prestakuntza ematea.

**0.3.2.** Zonaldeetako Caritasen arteko koordinazioa sendotzea, eskualdeko parrokiak guztietan laguntzeko irizpideak adosteko.

- Arreta- eta laguntza-irizpideak diseinatzea eta aplikatzea, erantzun komun bat osatu ahal izateko.
- Aldian-aldian arreta emateko eta laguntzeko dugun modua berrikustea.

0.4

Estrategia

## Komunitatearen animazioa lantzea eta lurraldeko deszentralizaziorantz jotzea

Helburu estrategikoa

**0.4.1.** Elizbarrutiko Caritasen balibideak deszentralizatzea lurralde osoan.

Ekintzak

- Lurraldeak dituen beharrak biltzen dituen agiri bat prestatzea, deszentralizazio-prozesua abiatzeko lehen urrats gisa.
- Hainbat deszentralizazio-eredu proposatzen dituen agiri bat prestatzea.
- Laguntzak, balibideak, programak areagotu eta garatzea lurraldean.



0.5

Estrategia

## **Gure testigantza ingurura helaraztea eta kutsatzea**

Helburu estrategikoa

**0.5.1.** Gizartea sentsibilizatzea baztertuak eta gizarte egoera ahulean dauden pertsonen erreallitatea agerian jarriko dituzten ekintzen bidez.

Ekintzak

- Caritasen ekintza eta egitekoa lantzen jarraitzea ikastetxeetan.
- Caritasen ekintza eta egitekoa auzoetan lantzea.
- Gizarte-jarduerak antolatzea, erakundearen konpromisoa ezagutarazteko eta gizartea eraldatzeari dagokionez duen jarrera agertzeko.
- Itxaropen-mezuak sortzea, pertsonekin elkartzeak ekarritako esperientzien alderdi positiboa azpimarratuz.
- Caritasen proiektuak ezagutaraztea.
- Erreferentziako profesionalekin Caritasen zentroak eta zerbitzuak bisitatzeko aukerak antolatzea.

0.6

Estrategia

## **Gehien pobretutako herrialdeen garapenaren alde lan egitea**

Helburu estrategikoa

**0.6.1.** Munduko pertsona eta herrialde pobretuekiko konpromiso solidarioari eustea.

Ekintzak

- Garapenaren aldeko lankidetzaproiektuak bururaino eramatea, tokian tokiko elizekin batera lan eginez.
- Kristau-komunitatea, eta gizartea oro har, kontzientziaztea munduko herrialde pobretuen benetako egoeraren inguruan.



# 1. ardatza **Pertsonei laguntza eta arreta ematea**

Caritasek lehentasuna ematen die egoera zaugarrian edo gizartetik at dauden pertsonei eta herriei; izan ere, Caritasen

misioa da pertsona horien parte-hartzea sustatzea eta pertsona gisa zein gizartean garatzen laguntzea eta sustatzea.

1.1

Estrategia

## **Arreta- eta laguntza-eredu bat garatzen jarraitzea**

Helburu estrategikoa	Ekintzak
<b>1.1.1.</b> Arreta eta gizarte laguntza emateko irizpideak berrikustea.	<ul style="list-style-type: none"><li>■ Arreta berezia ematea eta laguntzea administratibotik laguntza publikoak jasotzeko baldintzak betetzen ez dituzten pertsona guztiei.</li><li>■ Lehentasuna ematea pertsonei laguntzeari, pertsonei eta familiei ematen diegun arreta eta laguntzaren ardatz gisa, pertsona gisa eta familian garatu eta sustatu daitezten.</li><li>■ Pertsonen parte hartzea eta autonomia bultzatzea beren garapen prozesuan.</li><li>■ Gure lana berrikustea, etengabe aldatzen den errealitatera egokitu dadin.</li></ul>
<b>1.1.2.</b> Gure arreta- eta laguntza-eredua definitzea hari buruz hausnartzea.	<ul style="list-style-type: none"><li>■ Arreta Eredua birpentsatzeko Mahaia sortzea, eredu hori aldatzeko eta gizarte errealitatera egokitzeko.</li><li>■ Arreta eta Laguntza Ereduari buruzko dokumentua prestatzea.</li></ul>

# 1.2

Estrategia

## Gizarteratze prozesuak diseinatzea egoera zaugarrian eta gizartetik at dauden pertsonentzat

<p>Helburu estrategikoa</p> <p><b>1.2.1.</b> Prestakuntza integralerako programak sustatzea egoera zaugarrian eta gizartetik at dauden pertsonentzat.</p>	<p>Ekintzak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>■ Caritasera hurbiltzen diren pertsonen beharretara egokitzen diren prestakuntza-prozesuak diseinatzea.</li> <li>■ Caritas-sarea deribazio protokoloa ezartzea.</li> <li>■ Beste gizarte-erakunde edo erakunde publiko batzuek garatzen dituzten prestakuntza-baliabideak erabiltzea.</li> <li>■ Hainbat intentsitate eta eduki dituzten prestakuntza-baliabideak sortzea, gizartetik at dauden pertsonen prestakuntza osatzeko.</li> <li>■ Administrazioarekin lan egitea prestakuntza eremu horietan inbertsio publikoa sustatzeko beharrari buruz.</li> <li>■ Egoera zaugarrienean dauden pertsonentzako prestakuntza-ekintzak garatzen dituzten erakunde publiko edota sozialekin lankidetzan aritzea eta haiekin koordinatzea.</li> <li>■ Pertsoneri eta familiei laguntzeko tresnak bilatzea, prestakuntza-prozesu horiei eutsi ahal izateko.</li> </ul>
<p><b>1.2.2.</b> Lanbideratze programak bultzatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>■ Lanbideratu aurreko programa malguak eta pertsoneri egokituak abiaraztea.</li> <li>■ Lanbideratu aurreko programetako eta lanbide-tailerretako toki kopurua areagotzea.</li> </ul>



## 2. ardatza **Gizarte presentzia eta eraldakuntza**

Caritas Gipuzkoak, bere lanaren bitartez, gizartea

aldatu nahi du; horretarako, balioak eta jarrerak sustatzen ditu pertsona

guztiek bizimodu duina izan dezaten.

2.1

Estrategia

### **Gizartea eraldatzen laguntzea, salketa profetikoaren bidez**

Helburu estrategikoa

**2.1.1.** Gizarte eskubideen urraketaren aurrean adierazpen publikoak bultzatzea.

Ekintzak

- Gizarte errealitateari buruzko memoriak eta dokumentuak prestatzea.
- Gizarte errealitatea ezagutaraztea.
- Komunikabideak eta gizarte sareak erabiltzea.
- Errealitatearen analisisa eta haren inguruan irakurketa sinestuna eskaintzea.
- Itxaropen mezua sortzea, elkartasunari eta ondasun komunari balioa emanez.
- Pertsonen eskubideak eta duintasuna defendatzea esparru guztietan.

2.2

Estrategia

### **Caritasen ekintza eta egitekoa ezagutzera ematea**

Helburu estrategikoa

**2.2.1.** Esparru publikoan presentzia izatea.

Ekintzak

- Erakundeetan dugun presentzia garatuko duen komunikazio-sarea eraikitzea eta lantzea.
- Caritasen presentzia sustatzea plataformetan eta sareetan
- Topalekuak sortzea.
- Hedapen tresnak sortzea.
- Gizarte errealitateen aurrean dugun jarrera eratztea.

## 2.3

Estrategia

### **Pobreziaren eta gizarte bazterketaren arrazoien eta ondorioen inguruan sentsibilizatzea**

Helburu estrategikoa

**2.3.1.** Borroka egitea egungo gizartean estigmak aldatzeko gizarte bazterketaren eta pobreziaren aurrean.

Ekintzak

- Eskubide sozialei, aniztasunari eta gizarteko beste gai interesgarri batzuei buruzko prestakuntza garatzea.
- Ezagutzan eta Legeak, gizarte politikak, ... sortzen diren esparruetan inbertitzea.

## 2.4

Estrategia

### **Pertsonen eskubideak defendatzea**

Helburu estrategikoa

**2.4.1.** Administrazioari eragitea herritarrekiko dituen obligazioak bete ditzan (gizarte zerbitzuen legea...).

Ekintzak

- Administrazioaren eta Erakundeen arteko komunikazio esparruetan parte hartzea, errealitatea ezagutzeko eta proposamenak egin ahal izateko.
- Gizarte politiken diseinuan parte hartzea eta haien betetze mailaren jarraipena egitea.



# 3. ardatza **Pertsona eragileak**

Caritasen gizarte ekin-tza garatu ahal izateko, gizartetik at dauden

pertsonei laguntzen eta arreta ematen diegunok prestakuntza egokia eta

etengabea behar dugu, lan hori egin ahal izateko.

3.1

Estrategia

## **Pertsonei hobeto laguntzeko eta arreta emateko prestakuntza- eta jarduketan plan bat garatzea**

<p>Helburu estrategikoa</p> <p><b>3.1.1.</b> Caritas Gipuzkoan HARRERA alderdia indartzea.</p>	<p>Ekintzak</p> <ul style="list-style-type: none"><li>■ Parrokia Caritasen antolakuntza errealitateari buruzko analisi dokumentu bat egitea.</li><li>■ Parrokia Caritasei laguntzeko plan bat egitea.</li><li>■ Elikagaien banaketari eta elikagaiak eskuratzeko sistema duintzeari eta arreta emateari buruzko hausnarketa proposatzea.</li><li>■ Baliabideak eta tresnak ematea, parrokia Caritasetan pertsonen harrera duinagoa izan dadin.</li><li>■ Beharrezko urratsak ematea, Caritas Gipuzkoako gizarte-arreta sarea sendotuko duen antolakuntza-egitura bat izateko.</li><li>■ Egoera zaugarrian dauden pertsonekin harremanetan egoteko hizkuntza egokia eta duina lantzea eta garatzea.</li></ul>
<p><b>3.1.2.</b> Egoera zaugarrian dauden pertsonei eta familiei laguntzeko baliabideak garatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"><li>■ Laguntza tresnen dokumentua prestatzea.</li><li>■ Laguntza tresnak, bisitak, gune informalak, irtenaldiak, ... abian jartzea.</li><li>■ Egoera zaugarrian dauden pertsonekin egoteko eta hitz egiteko espazioak sortzea haien eguneroko bizitzaren hainbat alorretan.</li></ul>
<p><b>3.1.3.</b> Prestakuntza tekniko eta gizarte prestakuntza bultzatzea, pertsonei harrera eta lagun egiteko.</p>	<ul style="list-style-type: none"><li>■ Arreta eman eta laguntzeko gizarte tresnei buruzko prestakuntza hedatzea.</li><li>■ Gizarte baliabide eta prestazioei buruzko prestakuntza sendotzea.</li></ul>

## 3.2

Estrategia

# Gizarte errealitatea ikustea eta aintzat hartzea

Helburu estrategikoa

**3.2.1.** Gizarte errealitatearekiko prestakuntza, informazioa eta analisia indartzea, gure egitekoa egokitu ahal izateko.

Ekintzak

- Gizarte errealitatea ezagutzera bideratutako prestakuntza garatzea.



## 4. ardatza **Erakunde**a

Caritas Gipuzkoak, egitura gisa, helburu du erakundearen barruan ekintzak artikulatzea egoera zaugarrian eta gizartetik at dauden pertsonen laguntzeko eta arreta emateko bere helburua erdietsi ahal izateko.

4.1

Estrategia

### **Caritas Gipuzkoaren ekintza osoan eliza-nortasuna bultzatzea**

Helburu estrategikoa

**4.1.1.** Pertsonen kontratazioa zaintzea.

Ekintzak

- Gizarte mailan eta maila pastoralean halako ezagutza eta esperientzia batzuk eskatzen dituzten profilak bultzatzea.
- Elizaren gizarte pentsamenduari buruzko prestakuntza garatzea.
- Errealitatearen irakurketa sinestuna egiteko espazioak irekitzea.
- Caritasen gizarte ekintzan elizaren nortasuna zaintzea.
- Erakundeko kide diren pertsonen prestakuntza integrala eta konpromisoa indartzea.



# 4.2

Estrategia

## Politika eta gizarte mailetan garrantzitsuak diren zeharkako gaiak garatzea

<p>Helburu estrategikoa</p> <p><b>4.2.1.</b> Caritas Gipuzkoa barruan koordinazioa sustatzea eta erakunde barruan hausnartzeko eta elkarri laguntzeko espazioak sustatzea.</p>	<p>Ekintzak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>■ Kontraturiko langileen eta boluntarioen artean espazio berriak sortzea egitekoa, helburuak, ... partekatzeko.</li> <li>■ Elkarrekin lantzea pertsoneri laguntzeko eta arreta emateko irizpideak Caritas Gipuzkoako askotariko espazioetan, programetan, parroketan...</li> <li>■ Asebetetze-galdetegiak banatzea erakundeari loturiko pertsona guztiei.</li> <li>■ Lan-mahaien (laguntzaileen mahaia, gizarte-ekintzaren mahaia, etxebizitza-batzordea, berdintasun-batzordea...) informazioa elkarri igortzea eta zaintzea.</li> <li>■ Caritas Gipuzkoaren gizarte-ekintzan erabiliko den terminologiari buruzko prozedura bat garatzea.</li> </ul>
<p><b>4.2.2.</b> Hizkuntzaren normalizaziorako plana gauzatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>■ Plan bat prestatzea eta hura abian jartzeko tresnak eta estrategiak bilatzea.</li> </ul>
<p><b>4.2.3.</b> Erakundearen berdintasun plana gauzatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>■ Plan bat prestatzea eta hura abian jartzeko tresnak eta estrategiak bilatzea.</li> </ul>

